


BERRIGARA

15 zenbakia

Jardun elkartea, Bergara

1991, apirilak 5

Ni bizi naiz baserrian...



Aste Santua:
Begararrak
bidaiari



Taun-Taun:
Txontxongiloen
mundua lantzen



Txirrindularitza:
Lokatza taldea
aurten ere errepidean



ROVER

SAN ANDRES AUTOMOBILAK



ROVER 200 SERIEA, 16 BALBULA ETA

1.785.000 PZTATIK AURRERA

Araba Etorbidea 13, 20.500 ARRASATE

Tfnoa: 79 95 22 / 79 53 98





GAMAK

INFORMATIKA GAUZAK

✓ **“Novell”** sarea beste sistema batzurekin batera erabil daiteke, bai inprimagailu baliotsuekin, ahalmen haundiko diskoekin, eta baita beste sistema berezi batzurekin ere, adibidez fax, modem eta halako komunikabide sistemekin.

✓ **“Novell”** sareak daukan posta zerbitzu elektronikoaren eta lojikalaren bidez lan taldeko partaideen arteko komunikazioa lor daiteke.

✓ Enpresak negozioarako erabiltzen dituen teknikak aldatzeko ere lagungarri izango da **“Novell”** sarea. Eta hainbeste denbora galdu erazten duten bilera mordoak eta informazio-bide geldoak ere ebitatu ahal izango lirateke lojikalak erabiliz.

ARTZAMENDI 1

Tfnoa: 76 56 85, Faxa: 76 55 97


BERGARA

BONOFOTOA

BERRIGARA

Jardun Elkartea

1991, apirilak 5



M. A. Elkorobereizbar



Miren Etxezarreta

Zazpigarren BONOFOTOAK badu dagoeneko irabazlea. Zozketaren orduan Miren Etxezarretarentzako izan zen 10.000 pzta.ko saria.

Zuzen zebilen irabazlea, argazkiko hilarritik gertuen dagoen baserria Isasi (Isasizabal) dugu.

Zorionak beraz, Miren!

Besteok badakizue; saiatu beheko galdera erantzuten!

Nola deitzen da argazkiko Baserria?

Izena: _____ Abizena: _____ Tfinoa: _____


Moztu paper hau eta ekarri astebete baino lehen: **BERRIGARA**

Errotalde Jauregia

20.570 Bergara

Oharra: Asmatzailerik azalduko ez balitz, saria hurrengo BONOFOTOOrako gordeko litzateke, FOTOPOTEAN

GIARTZU



GIMNASIOA

BONI LASKURAIN 3, ETXABEA

Tfnoa: 76 35 71

BERGARA

BERGARAKO AZOKA

<p>JUANITA MORENO</p> <p>Arraindegia</p> <p>Tfnoa: 76 12 54 Azoka: 76 02 44</p>	<p>GABILONDO</p> <p>Harategia</p> <p>Azoka: 76 26 98 Etxekoa: 76 26 53</p>	<p>JANARI</p> <p>FRESKOAK</p> <p>AUKERATUAK</p>	<p>LURDES</p> <p>Harategia</p> <p>Esneko Moxala</p> <p>Tfnoa: 76 12 17</p>	<p>IZOTZ</p> <p>Konjelatuak</p> <p>Errefrijeratuak</p> <p>Marskoa</p> <p>Tfnoa: 76 56 91</p>
<p>MERTXE</p> <p>Oilaskoak Urdaitegia</p> <p>Tfnoa: 76 54 67</p>	<p>YANIRE</p> <p>Frutadenda</p> <p>Tfnoa: 76 52 34</p>	<p>LA BERMEANA</p> <p>Arraindegia</p> <p>Tfnoa: 76 15 16 Etxekoa: 76 00 48</p>	<p>PATRI</p> <p>Harategia Txemikitegia</p> <p>Tfnoa: 76 02 20</p>	<p>PRIMI</p> <p>Arraindegia</p> <p>Azoka: 76 15 90 Poligonokoa: 76 21 91 S. Antonikoa: 76 21 08</p>

BERRIGARA

Argitaratzailea:

Jardun Elkarte

Errotalde Jauregia, 20.570 Bergara

Tfnoa: 760397

Laguntzailea: Bergarako Udala

Zuzendaria:

Miguel Angel Elkorobereibar

Erredakzioa:

Jon Andueza. Eneko Azkarate

Maketazioa:

Edume Arenaza. Jon Andueza

Publizitate eta harpidetzak:

Ignazio Irigoien. Edume Arenaza

Tfnoa: 760397

Erredakzio-kontseilua: Jose Angel

Mikeo, Estepan Plazaola eta Juan

Martin Elexpuru

Kolaboratzaileak: J. Oregi, A.

Urzelai, Mariپی Laskurain, Olaia Inza,

Ainhoa Lete, Jon A. Bengoa, Mikel

Lizarralde, Monika Belastegi, Mikel

Elkorobereibar, Josune Iñarra eta

Xabier Aranburu, Aitziber Aretxaga

eta Ainhoa Bikufia

Argazki laborategia: I. G. Landa, A.

Gallastegi, B. Cantero, M. Leturia, K.

Retolaza, J.A. Eguren, J.I. Millan, J.

Aguayo, R. Vicente, J. Tabares, J. A.

Jauregi eta Kifu

Komikia eta marrazkiak Josu Okina

eta Antonio Arrillaga

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Ofiati)

Banaketa arduraduna:

Txantxangorri Taldea

Copyright:

BERRIGARA

Tirada: 2.000 ale

Lege gordailua: SS 50/ 91

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.



Asteari begira

5 OSTIRALA

- **Erakusketa:** *Nahikari* tabernan, gaur arte bertan erakusketak egin dituzten margolarien lanen bilduma.
- **Goardiako farmazia:** Mozos, San pedron.

6 LARUNBATA

- **Antzerkia:** Mariaren Lagundian, gaueko 10etan, Maskarada taldearen *Marxkarada* antzeslana.
- **Goardiako farmazia:** Camacho, Bidekurutzeta.

7 IGANDEA

- **Goardiako farmazia:** Camacho, Bidekurutzeta.

8 ASTELEHENA

- **Gosardiako farmazia:** Puy, Barrenkale.

9 ASTEARTEA

- **Goardiako farmazia:** Guallar, San Antonio.

10 ASTEAZKENA

- **Goardiako farmazia:** Estella, Matxiategi.



✓ Adi apustulariok

Jakin ere jakin dugu Berrigararen azken aleko kontraportadan zetorren argazkiak (talde bat sokatiran agertzen zuenak), jakinmin handia sortarazi duela herritarren artean.

Jakin ere jakin dugu hainbat komentario eta apustu egin direla, argazki hura Gerra aurrekoa ote zen edo ez.

Apostulari horientzat zera argitu nahi dugu: argazkia 1226-28 urtekoa dela. Gerra aurrekoa, beraz.

Eztabaida berriak piztu asmoz, hona hemen Toribio Jauregik San Martin plazan ateratako argazki hau. Argi dago gerra ostekoa dela, Korreos egoitzako fatxadan agertzen diren bonba metrallaren aztarnek horrela adierazten dutelako argi eta garbi.

Baina...asmatuko zenukete zein urtetakoa den?

Apustuak martxan!!

KIZKUR



Ileapaindegia
Solariuma

Bolu 51 Tfnoa: 76 50 32 BERGARA



BERGARA

Tfnoa: 76 25 99

ETXAGI

Afaraik
Bazkariak
Gosariak
Bataioak
Jaunartzeak
Eguneko menua

JATETXEA

Mahasterreka 8, Tfnoa: 76 53 12

ANDIZV

**ERAIKUNTZA
MATERIALEN
BILTEGIA**

**Errotuloak, igeltseritza
eta pintura lanak.**

TELLERIKO LANA Pol/Ind. San Juan
C-1-B Pab. Tfnoa: 76 01 41
Faxa: 76 00 58 BERGARA

Kiñu


ARGAZKINDENDA

ARGAZKILARIAK

**Martxotik aurrera
Barrenkale 35ean**

Tfnoa: 76 58 05
BERGARA

Aste Santua ala turismo Santua?



Santua deitzen diogun astea joan zaigu. Aste honen gailurra Pasku igandea, Jesusen piztuera eguna dugu.

Gaur egun, Aste Santua, Udaberriko opor garaia dugu; asteazkenean, Bergararik aldegitaren "martxia" ikusi genuen.

Eta Jesusen jarraitzaile izan nahi dugunontzat, hemen gelditu edo atsedean bila joan, egun hauek garrantzitsuak ditugu.

Badakit garai batean garrantzi gehiago eman izan diogula Ostiral Santuari, Paskuari baino; badakit egun hauek "tinte beltz" haundiegia izaten dutela.

Baina gaur nola bizi Aste Santua?

1. Aste Santuan, Jainkoaren maitasuna, Jesukristorengan agertu zaiguna bizi behar dugu. Ostegun Santu egunean utzitako agindua: "Nik maite izan zaituztedan bezala, zuek ere maite ezazute elkar" da lehendabizi gogoratu behar duguna. Egun hauetan bizi eta sentitu Jaungoikoaren maitasuna...

2. Aste Santuan ere bizi behar dugu bihotz berritzearen deia. Jesukristo besteentzat bizi izan zen; bere garaiko gizon eta emakumea askatzen ahalegindu zen; on eginez mundu honetatik igaro zen... eta mundu honen saria: "Gurutzean heriotza". Munduak ez lehen, ez orain, ezin du jasan, mundua egiaz maite duelako, egia esaten diona. Jesukristoren hitz eta jokabideetan berritu gaitzen!

3. Aste Santuan, gudan, Pasku Poza sortarazi. "Gurutz hiltzatua, Jainkoak piztu du. Zuek gurutzean josi eta hil zendutena Jainkoak piztu du"... Jainkoak ez du piztu garai hartako monjea, fariseoa... Jainkoak "zintzoa" piztu du, zuzengabekeriaren aurka atera da eta "zuzenari" bizia eman dio.

Poztu:

Argiak iluna, egiak gezurra,
eta zuzentasunak zuzengabekeria garaitu duelako.

Bergararrok: har ezazue Jesukristok aurtan dakarkigun Pasku Poza eta Zoriona.

**Xabier Zubizarreta
Apaiza**

Tiira ba!



Josu Okina

□ Dirulaguntzak euskara ikasleentzat

Joan zen urtean bezala aurten ere Udalak dirulaguntzak emango ditu euskara ikastera barnetegira joaten diren bergarrentzat. Dirulaguntzok kostu osoaren % 70erainokoak izan daitezke ikaslea langabetua izanez gero, eta % 20erainokoak lana baldin badu.

Dirulaguntzoi buruzko argibiderik nahi duenak Udaleko Euskara Zerbitzura jo dezake.

□ Literatur lehiaketa

Astehenean, apirilak 8, bukatuko da Udaleko Euskara Zerbitzuak antolatutako Literatur Lehiaketan lanak aurkezteko epea.

Adinaren arabera, sei kategoria ezberdin sarituko dira. Informazio gehiago, dena den, 76 39 42an jaso dezakezue.

□ Maskarada antzerki taldea

Larunbat honetan, apirilak 6, Maskarada antzerki taldea hurbilduko zaigu Mariaren Lagundiko aretora, *Marxkarada* izeneko obra antzeztu asmoz.

Emanaldia gaueko 10etan hasiko da.

□ Biztanleen errolda

Martxoan zehar Udaletxean biztanleen errolda berriren ibili dira. Bergarar guztiak bertatik pasatu ez direla eta, ordea, epea apirilaren 25era arte luzatzea erabaki dute.

Bide batez, gogoratu Udalarekin harremanak euskaraz izan nahi duen edonork oraintxe daukala hori eskatzeko aukera.

□ Argazki lehiaketa

Maiatzaren 6an bukatuko da VII. Bergara Hiria Argazki Lehiaketan lanak entregatzeko epea. Gaia librea izango da, eta Bergarako nahiz kanpoko edozein argazkizalek har dezake parte.

Argazkiak zuri-beltzez edo koloretan eginak izan behar dute, eta gehienez lau lan aurkeztu daitezke.

Interesatuak, jo Udaleko Kultura Batzordera.

□ Erakusketa Nahikari tabernan

Apirilean zehar, gaur arte *Nahikari* tabernan egin diren margo-erakusketa guztien bildumatxo bat izango duzue ikusgai. Margolari bakoitzak koadro bat utziko du.



✓ Aste Santuko bidaiak

Zuek zenbaki hau jaso orduko Aste Santuko oporrak amaitzeaz egongo badira ere, Bergarako Elkarte, ikastetxe, etab.ak nondik nora ibili diren jakin nahi izan dugu.

Aritzeta abesbatzakoak Holandaraino joan zaizkigu.

Martxoaren 27an irten, eta apirilaren 1ean itzuli ziren, Amsterdam, Vollandam eta Heiloon ibili ondoren. Guztira, 46 lagun elkartu ziren bidaiari honetan.

Udal Musika Bandako lagunak ere Valenciako Chulilla herriraino abiatu ziren martxoaren 31n, bertan emanaldi bat burutu asmoz. Senideak eta guzti, denetara 120 bat lagun joan zitzaizkigun bi autobusetan.

Pol-Pol Mendizale Taldeko 47 beteterano Tignes, Valdisier eta Alpeetara eskiatzera joan ziren bitartean (martxoaren 29tik apirilaren 6ra), 16-17 urteko 40 gaztetxok akanpada burutu zuten Santa Elenan (Pirineoetan), martxoaren 28tik apirilaren 2ra.

Institutuko 3. mailako ikasleek ere oporraldia aprobetxatu dute, ikasbidaiari burutzeko. Talde bat Holanda, Belgika eta Frantzia zehar ibili da, eta bestea, berriz, Malaga, Benalmadena eta Marbella ezagutzera abiatu zaigu. Hamar egun eman dituzte herritik kanpo.

Partikularrak, eguzkiaren bila

Agian azken boladako eguraldi txarra medio, bere kasa bidaiatzera irten diren bergararrak eguzkiaren bila abiatu omen dira. Bidai ajeztiazan aipatu digutenez, **Canarias, Baleares, Peñíscola** eta **Salou** izan dira 20 eta 45 urte arteko bergararrek gehienbat aukeratu dituzten tokiak.

Horiez gain, seguruenik beste asko ere hor-nonbait ibili dira, bide ezberdinak jarraituz. Ziur guztiak ere makina bat kontakizun izango dituztela bueltan!

ALTZARI

FAGOR ALTZARIEN BANATZAILEA
SUKALDERAKO ALTZARIAK

BOLU 24 Tfnoa: 76 30 57
BERGARA

ORTZI

Erretegia

ANGIOZAR Tfnoa: 76 22 68

KAFETEGIA



Barrancala, 34
Tel. 762276
BERGARA



Ludoteka eta haurrentzako ekintzak

Bergarako Udalak antolatutako denbora libreko begirale ikastaro bat egin ondoren sortu genuen *Txintxirriña* Elkarteak.

Udalak proiektu bat eskatu zigun elkartekoei, eta honen ondorioz sortu ditugu denbora libreko ekintza hauek.

Bergarako Udalak aporterazio ekonomikoa, lokalen prestaketa, etab. hartu ditu bere gain. *Txintxirriña* Elkarteko kideok, bestalde, gure lanarekin eramango dugu aurrera proiektu hau Bergara mailan.

Ekintza hauek eskolako haurrentzako zuzenduak daude, 3 eta 12 urte arteko neska-mutikoentzat, hain zuzen ere. Bertan, atal ba-



koitzean aurrez prestaturiko begiraleekin, ondo baino hobeto pasa dezakegu denbora bai jolasten, bai irteerak prestatzen edota bai eskulana egiten ere.

Zeintzuk izango dira ekintza hauek?

Ludoteka: Begirale helduen zaintza, eta harremanen bitartez eta planteamentu pedagogiko baten ikuspegitik antolaturiko jolas-tokia da. Bergarako Ludoteka Seminarioan kokatua izango da egunero, arratsaldeko 5etatik 6etara (eskolaurre eta hasiera ziklokoentzat), eta 6etatik 7etara (erdi ziklokoentzat).

Asteburuak: Ekintza hauen helburua herriko haurrek kalea berreskuratzea izango litzateke, bertan hainbat ekintza burutu asmoz. Ekintza hauen artean jolasak, irteerak, eskulana, etab. egingo dira.

Larunbat goizez, 10etatik 1etara eskolaurre eta hasiera ziklokoentzako egitarauak borobilduko ditugu; arratsaldez, ostera, 4etatik 7etara, erdi ziklokoen txanda.

Udaleku irekiak: Aurreko urteetan Udaleko Euskara batzordeak antolatzen zituen uztailleko udaleku irekiak, aurten *Txintxirriña* Elkartearen esku geldituko zaizkigu.

Txintxirriña Elkartekoak

Ez pentsa guk ere hori nahi dugunik

Orain hilabete, Gazte Asanbladako lagunok ohizko bilera egin genuen Gaztetxean, bertan dauden arazo eta ideiak komentatzeko. Heroinaren arazoa oso larria zela, eta bertan bildutakook mugitzen hastea pentsatu genuen.

Droga honek Gaztetxe eta herriaren inguruan ez du ezer onik ekartzen, arazoak bakarrik. Hau dela eta, Gazte Asanbladakook hurrengo egunerako kartel mordoa gertatu eta kaleetan ipini genituen. Gaztetxeak, bestalde, manifestaldi bat antolatu zuen martxoaren 16rako (baina ez ziren bertara gazte asko azaldu). Bi kontzertu ere montatu genituen "Heroinaren kontra", bata *Radikal Hardcore* eta *Beer Mosh* taldeekin, eta bestea *Kalean* eta *Spokekin*.

Guzti honekin, arazoa gazte guztiena dela adierazi nahi dugu, eta aurrera egiteko guztion laguntza beharrezkoa dela gogoratu.

Besterik gabe.

Bergarako Gazte Asanblada

CAMACHO

- * DROGERIA
- * USAINDEGIA

BIDEKURUTZETA 24
BERGARA. Tfnoa: 761335

P. MANSO

Optika

OPTIKOA, OPTOMETRISTA

IRIZAR IBILBIDEA 2 Tfnoa: 76 27 86 BERGARA

GURIA

TABERNA

Bidekurutzeta 5,
Tfnoa: 76 20 34

GOIERRI

AUTOGIDARIEN ESKOLA

Fraiskozuri Enparantza, 5
BERGARA

Tfnoa: 76 41 50



Taun-Taun: Txontxongiloak dantzan

Hiru urte inguru daramate txontxongiloekin lanean eta harrezkero beste hainbeste lan antzeztu dute. Aldaketa batzuk izan ondoren, gaur egun hiru lagun ari dira lanean, noiz behinka kolaborazioren bat ere euki izan duten arren. Duela gutxi estreinatu dute azken lana, "Bi kate" izenburukoa. Hamar egun dela, Euskal Herriko Aktoreen Batasunak Donostian antolatutako Antzerki Jaialdia zabaldu zuten skech batekin.

Taun Taunen inguruan pertsona ugari ibili bada ere,

hasieratik bi aritu dira, Nartxi Azkargorta eta Iñaki Mata: "Nartxi zapatari zebilen lanean eta utzi egin zuen taldean buru belarri sartzeko. Ni, berriz, (Iñaki) Fagorren nengoen eta lanean jarraitzea erabaki nuen. Soldata bion artean banatzen genuen. Gero handik alde egin eta langabeziagatik irabazten nuenarekin, biok bizi izan gara urte pare bat". Lana utzi eta txontxongiloetatik bizitzea erabaki. Apostu gogorra benetan. Iñaki eta Nartxiz gain, gaur egun, Karmele Pérez aguraindarrak dihardu Taun Taunen.

- Antzezlanak zeuk muntatzen dituzue?

- Bai geuk egiten ditugu txontxongiloak, testuak, dialogoak, eskenografia eta gai-

nontzeko guztiak. Dena den, ezin dezakegu ahaztu, azken lan honetan Itxaso Azkaratek Zuzendari bezala, eta Xabi Labaienek musikarekin egindako lana, ezta Juan Martin Elexpurrak testua euskaratzen egindakoa ere.

- Bernardo Atxagarekin ere harremanak izan dituzue...

- Bai, Atxagari ikaragarri gustatzen zaizkio txontxongiloak, testuak moldatu izan ditu sarritan. Berarekin egon ginen Gasteizen eta beste behin, hona Bergarara etorri zen. Testu batzuk pasatuko zizkigula prometituko zigun. Gure lana asko gustatu zitzaion.



- Kontaizkiguzue zuen proiektuak.

- Gure asmoa "Bi kate" ahalik eta toki gehienetan antzezte da. Udazken alderako, Bilboko Kukubiltxo taldearekin lan egitea espero dugu. Amerikaren aurkikuntzaren bosgarren mendeurrena kritikatzeko egingo duten ikuskizun haundian ("Malintxeren


madarikazioa" izenburukoa) parte hartzeko kontratatu gaituzte. Diru pila gastatu dute, eta hurrengo hiru urteetan, 60 emanaldi urtero egin nahi dute...

- Latinoamerikatik bira bat egitekotan zeundeten?

- Bai, Bilboko Antzerki Jaialdian Eduardo De Mauro titiritero argentinarra gure lanaz txundituta geratu zen. Venezuelara, Colombia eta Mexikotik zehar lau hilabetez aritzea proposatu zigun, baina Kukubiltxoren proiektua zela medio ez genuen eskeintza onartu.

- Emaizkiguzue, azkenik, Bergaran antolatuko du zuen helduentzako txontxongiloen erakusketari buruzko xehetasunak.

- Bai, apirilaren azken egunetarako, Nazioarteko helduentzako lehen txontxongilo erakusketa egingo da. Kalleko zein barruko antzezlanak ikusi ahal izango dira, San Martin enparantzan, Novedades aretoan eta Gaztetxean. Gure nahia da txontxongilo antzezlanak, normalean haurrentzako egiten direnak, helduengana ere zabaltzea. Uste bait dugu helduentzako txontxongiloak ere badaudela, nahiz eta gutxiago. Bide hori bultzatu nahi dugu.



Gizonezkoentzako eta mutil gazteentzako moda. Sasoi honetarako andrazko eta neska gazteentzako moda ere bai.

Orain Irizar 2an gaude, laster Barrenkale 35ean

Zuhaitzi

AFARIAK: Asteburuetan. Aste barruan enkarguz

Espaloia 6 Tfnoa: 76 59 22 BERGARA

**ETXEPARE - BILINTX
LIBURUDENDA**

Liburuak eta diskoak

Ibargarai 12, Tfnoa: 76 40 50 BERGARA

Ni bizi naiz baserrian...

Honako honetan baserriaren mundura hurbildu gara, beti ere Euskal Herriaren aparteko ezaugarrien adierazgarri izan dugun baserriaren mundura. Hemen eta han bildutako datuak eskuan, egia esan ez dugu optimismoarentzako toki gehiegi ikusten. Triste bait dago baserria; triste...



Azken urteetan elen egin da belaunaldien arteko transmisioa. Gazteek hirira jo dute

Azken hamarkadan, Deba Garaiak bere baserrietako biztanleen %20a galdu du. Batetik, jaiotze tasaren murrizketa aipatu behar, eta bestetik, hirigunerako emigrazioa. Jatorriz baserritarra den belaunaldi gaztearen gehiengoak hirirako eta industriarako joera agertzen du. Baserrian geratzeko motibazioa falta da, hiriko erosotasuna eta baserriaren errentagarritasun eskaxa direla eta. Honela, nekazal populazioa, murrizteaz gain zahartzen ari da.

Zenbait datu

1981. urtean, 2.131 pertsonak osatzen zuten Bergarako nekazal biztanlegoa. 1989an, berriz, kopuru hori 1.381era jeitsi da.

Sexuaren arabera, orokorrean gizonezkoak dira na-

gusi baserri ihardueratan (% 54a). 65 urtetik gora, berriz, emakumeak gehiago dira.

Adinari dagokionean, aipatu batazbestekoa 42 urtetan aurkitzen dugula.

Sektore ekonomikoak aztertzen baditugu, 1986ko datuak eskuan zera ikusten dugu: Deba Garaiko langile-riaren %64ak industrian egiten duela lan, % 30ak zerbitzuen sektorean, eta nekazaritzan, ostera, %2a besterik ez.

Bai Deba Garaian eta bai Bergaran bertan, lurrik gehienak jabeak berak esplotatzen ditu. Errenta errejimean, % 3a aurkitzen dugu soilik.

Hutsik gelditzen ari dira

Industrializazioaren eraginez, aintzina nekazari edota abeltzain zenak, orain in-

dustrian dihardu. Honen ondorio nagusiak, baserrietatik hirirako emigrazioa eta nekazal ustiakuntzen garrantziaren galtzea izan dira. Baserri asko asteburuetarako mantentzen dira (txaletaren funtzioa eginez), beste askotan aiton-amonak bizi dira bakarrik, eta gainontzeko gehienetan, ekonomia kanpotik datorren soldata batetan oinarritzen da, ustiakuntza bera bigarren mailara igaroz.

Kontuak kontu, Deba Garaian 1.082 baserri gelditzen dira (horietako 306 hutsik); Bergaran 272 daude (76 hutsik).

Beste datu adierazgarri bat: Gure herrian, 129 pertsona dira Nekazal Gizarte Segurantzaren afiliatuak; horietako 55ek, ordea, baserrietik kanpo bilatzen dituzte bizitzeko diru-iturriak. Gauzak horrela, 42 dira soilik Europako Ekonomi Elkartearik *Indemnización Compensatoria de Montaña* delakoaren bi-

dez, baserrietik bizitzeagatik diru-laguntzak jasotzen dituztenak.

Paisaia baten deskribapena

Deba Garaian, orohar baso landaketak dira nekazal paisaiaren ezaugarri (eta konifera basoak nagusi, gainera).



Larre ugari (abeltzantza garrantzitsu baten lekuko), eta landatutako lur gutxi (gehienetan baratza txikiak izaten direlarik, edo zuhain soroak).

Zer produzitzen da?

Lur landuak 811 Ha. besterik ez dira Deba Garaian, 1.366 ustiakuntzatan banatuta (hauetatik hiru laurden

URRATS

Kafetegia

Ibargarai Tfnoa: 76 52 92
BERGARA

ARREGI

**Eraikuntza
materialeak**

Biltegia Teilerian Tfnoa: 76 27 93
Labegaraieta Auzoa

AGOITZ

TAPIZDENDA

San Lorenzo 25 Tfnoa: 76 11 58
BERGARA

baino gehiagok Ha. 1 baino gutxiagoko lur landua dute-larik). Garbi geratzen da, beraz, baserriarren nekazal iharduera eskasa.

Lehen aipatu bezala, nekazaritza famili ortuetara eta ganaduarentzako zuhain laboreetara mugatzen da gehienbat.

Fruta-arbolak landaketek ez dute garrantzi handirik gure artean; baserrietan fruta-arbola sakabanatu batzuk egoten dira (sagarrondoak eta urritzak batez ere). Halere, badirudi azken urteotan landaketa erregularraren aldeko esfortzua egiten ari direla (hor daukagu kiwien kasua, adibidez).

Ekoiizpenarekin jarraituz, aipatu garrantzirik haundiena zuhain-laboreek dutela, eta hauen artean sustraiek (arbia, erremolatxa, etab).

Ustiakuntza gehiago dira barazkiak landatzen dituztenak, nahiz eta sailez gutxiago izan (gehienbat etxerako baratzak direlako); barazki nagusiak, letxuga, tomatea eta patata.

Negutegien erabilera azken hamarkadan zabaldu da batez ere, errentagarritasuna lortu asmoz. Batez ere gazteek hartu dute bide hau.

Produktuak nora saldu?

Gure baserriarrek aurkitzen duten arazorik nagusia produktuen komertzializazio edo salerosketa da. Eskualdeko produkzioa, adibidez, herrietako azoketan eta mi-



Balentin Gabilondok, gazte askok ez bezala, eutsi egin dio baserriko bizimoduari

noristei saltzen zaie (oso gutxi Donostiako Atotxa merkatuan).

Nahiz eta hemengo produktuak kalitate, freskotasun eta itxura aldetik hobeak izan, egoeraren aurrean bakoitzak bere aldetik saltzen du, bere produkzio urria kotxez edo furgonetaz garraiatuz. Ez dago komertzializazio edota salerosketa elkarte edo kooperatibarik.

Abeltzaingoa

Deba Garaiko baserrietan, oraindik gaur behi haz-

kuntza da iharduera hedatuen; ondoren, geroz eta garrantzi haundiagoarekin, arditak datoz.

Azken urteotako joera, bestalde, esne behien hazkuntzaren espezializazioa izan da, ustiakuntzak gutxituz, baina geratu direnetan buru kopurua gehituz eta instalazioak hobetuz (abere hauek etengabeko dedikazioa behar bait dute).

Oraindik, dena den, zabaltzen ari den bidea dugu hori. Bien bitartean, eta batez ere baserriatik kanpo lan egiten dutenen kasuetan, aipatu

haragi behiak hazten dituzte-la gehienbat (arreta gutxiago behar bait dute).

Bestalde, badirudi baserri asko etxerako behi bat edo birekin gelditu dela.

Ardiei dagokienean, artalde kopurua igo egin da, baina batez ere, Deba Garaian artaldeko ardi kopurua gehitu da.

Bergaraldean, bestalde baditugu oilo granja haundiak. Bi daude Bergaran, gutxira 30.000 oilotik gora dituztenak, eta hirugarren bat Elgetan, hau txikiagoa, bi mila oilo inguru dituena.

Basoetan, pinua errege


Gipuzkoa osoan bezala, Deba Garaian aparteko garrantzia du baso azpisektoreak. Eskualdeak dituen 34.500 Ha. tatak, % 70a, hau da, 24.000 Ha. inguru, zuhaiztiez estalita daude; hauetatik, 19.000 Ha. koniferaz osatuta daude (batez ere Insignis pinuaz).

Honekin garbi geratzen da gure eskualdean hazkuntza azkarreko espezie exotikoek, eta batez ere Insignis pinuak duen garrantzia. Hedapen hau industriarenarekin lotu behar da; izan ere, industrian lanean hasi zirenetik, baserriarrek ez dute lurra lantzeko astirik eta euren lurrei etekin bat ateratzeko formula hauek jarraitu behar dituzte, hau da, arreta haundirik behar ez duten eta epe labur edo ertainera errentagarriak diren formulak.

**Beheko
Taberna**

**Menestra eta konejoa
dira gure berezitasunak**

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74



KONDE
PANADEROKUA
Burdināte 1
BERGARA

TOKI-EDER

Taberna

**Pintxoak eta
eguneko bazkariak**

Artzamendi Tfnoa: 765184 BERGARA

**Euskalduna
Taberna**

OSINTXU

ONENA

TINDATEGIA

BARRENKALE 29 BERGARA

A. ZANGITU

Paper pintatuak-pinturak

**Tfnoa: 76 19 54 BERGARA
Tfnoa: 79 91 82 ARRASATE**



**ETXE-
-AUNDI**

**Negozio bazkariak
Ezkontzak
Banketeak**

**Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56
OÑATI**

Zer egingo duzu aurten Aste Santuan?



Jabier Sebal
39 urte

Aurten lana egitea tokatu zait; beraz, herrian gelditu naiz familikoekin.



Irene Zenitagoia
18 urte

Ez dakigu, eguraldiaren zain gaude, eta hobetzen badu, Iparraldera irtetzeko ideia daukagu.



Marisabel Cantero
37 urte

Segun eta senarrari zer turno tokatzen zaion fabrian, eguraldiak hobetzen badu, agian Pancorbora joango gara, gizonaren familiari bisita egitera.



Carlos Ruiz
23 urte.

Aurten ez da zorterik egon. Lanean gelditu behar dut.

MABER GIMNASIA-ETXEA

Kulturismoa
Mantenimendu gimnasia eta zuzenketazkoa
Edozein kirol egiteko pisu-sistema egokiak
Sasoian egoteko behar dituzun makina eta pisu mota guztiak
URTE ASKOTAKO ESPERIENTZIA!

Zuzendaritza: **MARTIN BERROYA EGAÑA**
(Euskadiko kulturismo txapelduna)

Koldo Elizalde 16, Behea

Tfnoa: 76 56 17

BERGARA

✓ **Tahures Zurdos**

Aurora Beltranen *Tahures Zurdos* taldeak Bergarako Txibiston aurkeztuko du apirilaren 19an, Nieve Negra izenburuaz maiatzean kaleratuko duen diskoa. Iruñiarrek, *Wea* diskete multinazionalarentzat, Landetako *Du Manoir* estuioietan grabatu dute, Juan Carlos Perezen produkziopean.



✓ **Korrika 91**

Bergarar asko animatu zen aurtengo *Korrikaren* edizioan parte hartzera. Gure herrian 9 kilometro bete beharra zegoen, eta 11 elkarte eta erakundek eman zuten izena lekukoa eramateko. Aipatu, bestalde, arduradunek 516.000 pzta. jaso dituztela Bergaran, denda, kale eta talde ezberdinen artean egindako diru-bilketan.



✓ **Jaigiroa Jubilatuen egoitzan**

San Jose egunean, luntx berezia prestatu zuten jubilatuen egoitzan, 1900 eta 1901 urteetan jaiotako bergararrentzat. Santa Marinaran meza entzun eta gero, hogeitamar lagun inguru elkartu ziren aipatu luntxean. Opari sorta ere banatu zuten bildutakoen artean. Jaigiroa nagusi, gure aiton-amonek garbi erakutsi zuten oraindik ere umore ona sobera dutela!



Zertan dihardute ba?

MIKEL DIEZ



24 urte, Baionan dihardu lanean, Amerikaren aurkikuntzaren 5. mendeurrena kritikatzeko *Kukubiltxo* txontxongilo taldeak landuko duen obrarako eskenografia eta titereak prestatzen. Udazkenean, Charlevilleko txontxongilo eskolara joango da, Jaurritatik jasotako bekarekin.

ANTTON ARRILLAGA



44 urte, Elgoibarren jaiotako eta makina bat urte daramatza Bergaran bizitzen. Martxoan, 21 koadro izan ditu ikusgai Oñatiko Etxe Aundin. Zortzi urte inguru daramatza pintatzen, gehienbat ere paisaiak landuz. *Berrigarako* marrazkilaria ere badugu.



ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16, Tfnoa: 76 23 94- 76 12 65
BERGARA



Tfnoa: 76 38 57
Irala 1

Hau dok barreguria

Basarri inguru baten bazebillen Artobero txakur arrastuui segika eta halako batian, danba! danba!, zerbaitu tirau zotsan. Basarriko ataixan etxeko gizona zeuan eta tiro hotsa entzun da lasterrera erbi eder bat pasau jakon aurretik, osasun onakin, ihesi, Artoberon tiruai hanka eindda.

Laster zan Artobero, egarrixak, ur eske.

- Hi izan haiz hor tiroka? -preguntau zotsan baserritarrak.

- Bai, eta ixixa bota juat erbixa. Bigarren tiruan belarri bat kendu jotsat.

- Hola bada ondo ein dotsak. Etxaukan hiru belarrikin zertan ibilli.

Behin ijitto mutiko bat joan zan konfesatzera eta abadia Dotriña preguntzen hasi jakon.

- Nork hil eban Kristo?

- Eztakit pa.

- Kristo nork hil eban preguntau dotsut.


- Eztakit pa nor izan zeikien.

- Eztakizula nor izan zen?

- Ni ez naiz izan.

- Baiña, baiña... zu etzarella izan?

Hontan, ijittuak, jeiki,



buelterdi hartu eta hankajokuai emon zotsan. Ijitto lagun bat ikusi eban elizara sartzen.

- Konfesatzera hoia?

- Bai.

- Ez hari joan eze, Krespo izeneko bat hil juek ta gure gaifera jatozek kulpak!

- Ni beti izan nok ibiltari ona. Behin hirurogei kilometro dzanga dzanga ibili nintzuan neregaittik gaizki esaka zebillen bati muturreko batzuk emutera joateko.

- Eta bueltia be oifnez egin heban?

- Ez, kamillan.

J. M. Elexpuru

Narrasti erraldoiak

Dinosaurioak beren ingurunera ederki moldaturik zeuden. Haietako batzuk belar jaleak ziren, beste batzuk haragi jaleak, eta beste zenbait orojale. Temperatura, hezetasuna eta lur-gaineko klima-faktoreak guztiz egokiak ziren beren garapenerako. Beste izakien artean nagusiak zirenez, janaria segurtaturik ere bazeukaten. Animalia erresumaren erregeak zirela esan daiteke. Orduan, zergatik galdu ziren?

Zientzilari batzuk, Eguzki-sistematik hurbil zegoen izar edo kometa baten leherketak sorterazi zituen erradiazioek narrasti erraldoi haiek akabatu zituztela uste dute. Beste batzuk, izurrite edo eritasun batek bapatean izaki hauek desagertarazi zituela pentsatzen dute. Hala ere, inork ez daki segurki dinosaurioekin zer gertatu zen. Agian, egunen batetan zientzilari batek misterio hori argituko digu. Baina argi dagoena hauxe da: gizonak ez zirela izan, bere gezi eta lantzekin dinosaurioak akabatu zituztenak.

1. Dimetrodonte: Dimetrodonte lagarto haundi bat zen kresta eraktil batekin. Ikatzgunea zegoen laku iskinetan bizi zen. Baina saurio erraldoien urregunea askoz ere geroago etorri zen. Haragijaleak ziren.

2. Diplodokus: Diplodokusak 27 metroko luzera zuten, eta 30 tonelada baino gehiago pisatzera heltzen ziren. Pantanoetan bizi zen, bertako landaretzaz elikatzen zirelarik. Belarjaleak ziren.

3. Trizeratops: Trizeratopsek hiru adar zituen: bat sudur gainean, eta beste bi bekokian, haragijale erraldoiengandik babesteko. Belarjalea zen.



Aranzadi Ikastolako 5. mailako lagun talde batek

LONBIDE

OINETAKOAK



BIDEKURUTZETA 7,

Tfnoa: 76 10 57

BERGARA



Jatetxea

AURREZ ESKATUTAKO
BAZKARI ETA AFARIAK

Angiozar Tfnoa: 76 21 21

ayastury

JANTZIDENDA

BARRENKALE, 30

Tfnoa: 76 11 31

BERGARA

GANBARA

Berezitasunak:
Pintxoak eta
Kafea kremarekin

Irala z / g Tfnoa: 76 55 75

T
B
E
R
N
A

Txinpartak**□ Pizsinak zabalik**

Dagoeneko Agorrosingo Igerileku Munizipalak zabalik daude.

Squas kantxa, sauna eta gimnasioan, berriz, oraindik obrak egiten dihardute. Lanak bukatu eta gero, instalazio hauek lehen bait lehen zabaltzea espero dute.

□ Futbolina

Martxoan zehar hainbat kanporaketa jokatu ondoren, aurrera darrai LAMEk antolatzen duen II. Futbolin Txapelketa.

Gogoratu apirilaren 10ean norgehiagokak Oila-gorra tabernan jokatuiko direla.

Apirilaren 24an, berriz, neurketak Dixula tabernan.

□ Euskadiko Itzulia

Badator, heltzear dago, aurtengo Euskadiko Txirindulari Itzulia.


Astearte honetan, apirilak 8, momentuko txirindulari ospetsuenez osatutako tropela Deskargatik etorri eta Bergararik pasako da.

Ostiralean, apirilak 12, goizeko sektorean txirindulariek berriro zeharkatu dute gure herria.

Eta ostiral arratsaldean, aurtengo itzuliari amaiera emateko, Elorriotik Elgetara erlojuaren kontrako proba jokatu da.

Badator, badator tropela. Marinok irabaziko ote?

Lokatza txirindulari taldea: Berriro errepidean



Lokatza Txirindulari elkarteak aurten ere gogor ekin dio errepidean. Joan den igandean Antzuolan eginiko aurkezpenean, denboraldi hontarako asmoak eta helburuak azaldu eta txirindularien zerrenda luzea banatu zen. Hogeitamabost gazte arituko dira aurten bizikleta gainean Lokatza eta Oñatiko Aloña Mendi elkarteek batekin osatuko duten bost taldeetan. Alebin eta Infantiletan lau txirindulari ibiliko dira Jose Mari Gabilondoren zuzendaritzapean eta Maber Gimnasioaren laguntzarekin. Lau txirindulariz osatutako lehen urteko kadeteetako taldea Miguel Angel Lazpiurrek zuzendu eta *Sumofic-Nakajimaren* laguntza izango du. Bigarren urteko kadeteetan 12 gazte ibiliko dira, Manuel Reifs-ek zuzendari lanak beteko ditu eta sponsorra, berriz, *Caldererla San Pedro* izango da. Azkenik, jubenil mailan 14 txirindulari arituko dira Josu Errasti eta M. Larrañagaren ardurapean, eta *Sumofic-Nakajima* izena eramango dute. Lokatzak, errepideaz gain mendiko bizikleta ere bultzatu nahi du, horretarako Joseba Arietaleanizbeaskoetxeak arduradun lanak beteko dituelarik. Bestalde, 1991.era antolatuko dituzten proben artean, mendiko bizikletan herritarrentzat bi sari aurkitzen ditugu: otsailaren 10ean jokatuiko den San Blas Saria eta apirilaren 28ko Labegaraieta Saria. Honez gain, ekainean bi iteera egingo dira. Errepideko txapelketei dagokionez, hiru proba antolatuko ditu aurten Lokatzak: maiatzeko Puxka-Muxka sariokak, maiatzaren 1ean jokatuiko den Labegaraieta Saria eta Ekainaren 29ko San Martzial Saria.

**13 urte lanean**

1978an sortu zenetik txirindularitzan egindako lanagatik ezaguna bada ere, hasierako urteetan futbola eta atletismoa ere landu zituen. Dena den, fruitu emankorrenak txirindularitzan lortu ditu. Iñigo Igartua, Joseba Arietaleanizbeaskoetxea eta Ricardo Iturbe ezagunenak egiten bazaizkigu ere, Lokatzatik 300 txirindulari inguru pasa dira azken 13 urteetan.

Lokatzak hiru presidenten izan ditu bere historian: Manolo Solana, Juanito Suinaga eta gaur egun elkarte arduraduna den Jesus Kortabarría "Kaxeta". Azken honekin batera ari dira Jesus Mari Gabilondo eta Pello Garitano (antolatetan) eta Javier Gantxegi (sekretarioa).

Aurten 843.000 pzta.ko aurrekontua du Lokatzak.

50 bazkide inguru ditu eta aurten, beste hainbeste gehitu nahi dute. Bazkide bakoitzak mila pezeta ordaintzen du urtero, kuota bezala.

IGERILEKUKO**TABERNA**

EGUNeko MENUA
AURREZ ESKATUTAKO
AFARIAK

Tfnoa: 76 53 55



Rairzabal

Gozotegia

Artekale 9, Tfnoa: 76 11 83

Bidekurutzeta 20 / 22 Tfnoa: 76 12 19



Joan zen mendearen azken aldera hasi eta orain dela hogeit hamar urte inguru arte funtzionatu izan du Bergaran "Santísimo Rosario" izeneko inprentak. Dominikoena zen eta Seminarioko sotanoetan zegoen. "Santísimo Rosario" izeneko errebista ateratzen zuten erderaz. Euskarazko zenbait erlijio liburu ere argitaratu zituen eta horretaz gain kalendarixo-takoak, errekoratorixoak, eta beste hainbat holako.

Erretratu hau 1950ean eginda dago eta bertan inprentan lan egiten zutenak ageri dira.

Zutik, ezkerretik eskumara: Maurizio Elorza, Juan Etxaniz (Txarles), Esteban Irizar (atzean), Paulino Garitano (txikiena), Luis Alberdi eta Antonio Aiastui.

Jarrita, ezkerretik eskumara: Txomin Marko, Padre Federico, Fray Mariano eta Cornelio izeneko bat.

Azkenik, mutikoa Pedro Garcia dugu.

Esteban Plazaola

AUTOPULLMANS ARABA

Autobusak

Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara

ANGIOZAR Tfnoa: 76 50 77

ERREKI

ERRETEGIA

TXITXARRO ETA SAIHESKI-JANA
ASTEBUKAERETAN

Fraiskoziuri Enparantza
Tfnoa: 76 38 51

BERGARA

Oharra:

Orrialde honetan iragarkiak ez dira ordaintzen.

Merka-merke / 15



ETXEBIZITZA

- Pisu ederra salgai Iri-
zar pasealekuan. Deitu
761708 Tfnoa.
- Pisua salgai edo alo-
kairuan. Polita eta amue-
blatua. Deitu 762916
Tfno.ra, 21etatik aurrera.
- Amueblatutako pisu
bat alkitatzen da denboral-
di baterako. Tfnoa: 8615-
55, edo 862301.
- Pisua behar dut alki-
lrean. Tfnoa: 764255.
- Pisua behar dut alo-
kairuan. 765837.
- Pertsona bat behar du-
gu Mizpildin pisua osatze-
ko. 765837.
- Baserría salgai Berga-

ratik 3 km.ra. 770081,
10etatik letara eta 6etatik
8etara.

- Pisua salgai Koldo
Elizalden. Tfnoa: 765823.
- Lokal komertziala al-
kilatzen da bolun. Tfnoa:
763797.
- Pisua salgai Olan,
konpondua eta amuebla-
tua. Modu onean. 761669.
- Soto eta garajeak sal-
gai Martokuan. Tamainu
ezberdinetakoak. 761078.
- Andereño batek pisu
amueblatua behar du urte
guztirako. Erdikaldean ba-
dago, hobe. Deitu gaez
760371 Tfno.ra.
- Pisua salgai; garaje
eta guzti. 763911.
- Baserría alokatu nahi

dugu Bergaran.763431.

- Pisu edo buhardilla
hartuko genuke alokairu-
an. 764735.

LANA

- 16 urteko neska eus-
kaldunak umeak zainduko
lituzke 3retatik 9ak arte.
Tfnoa: 764061.
- Emakume bat eskain-
tzen da lanerako. 765403.

DENETARIK

- Ihauteri asteartean Po-
lignonoko Ikastola inguruan
argazki kamara bat galdu
nuen. Zerbait badakizu,
deitu mesedez telefono ho-
netara: 763270.

- Pintura klaseak. Tf-
noa: 764014 edo 763493.

- Ikasi josten zure as-
tialdian. 762858.
- 20,50 m2ko garajea
alkilatzen da Burdifatzen.
Egin berria. 764003.
- 55 m2ko lokala alkila-
tzen da. 765859, gaueko
9etatik aurrera.
- IPUIN dendaren albo-
ko lokala alokatzen da.
Galdetu Ipuin-en.

SALDU-EROSI

- Ibiza SXI automobila
salgai. SS-AC. Deitu 9eta-
tik aurrera 762268ra.
- Sofu bat salgai. Deitu
764195era.

Hildakoak

Antonio Puga Fernandez
82 urte. Martxoak 14an.
Bonifacia Fernandez De las Heras
81 urte. Martxoak 15ean
Elena Laskurain Kortabarria
74 urte. Martxoak 15ean.
Manuel Villar Baños
64 urte . Martxoak 24an

BERRIGARA

Eskatu eta etxean



76 03 97



ESPOLON



School of English
BERGARA

Ibargarai 31, Barrukoplaza.

AZKEN HIRUHILABETEA:
Oraindik tokia duzu.

**Informa zaitez Udako
ikastaro intentsiboetarako**

Deitu 10etatik 12.30etara eta 15retatik 16retara
76 03 53 Tfno.ra.



ZABETX

INSTALAZIOAK

Berogailu, gas eta iturgintza azterlanak.

Bainu diseinaketa.

Ordutegia: 9retatik- 1etara

3retatik- 7retara

Mahazterreka 14, Tfnoa: 76 54 14 BERGARA

Husqvarna

Baso eta lorategietan.

**Husqvarna
HARTU, ESERI
ETA BELARRA MOZTU.**



8 H.P.
82 zm.ko kortea

**214.000 Pza
+ BEZ**

**SEGAMAKINETAN
ESPEZIALISTAK**

ESKAINZA BEREZIA!



**Sega-makina
bakontzeko
opari
buztarrak mozteko**



Etorri eta ikusi, Brunet Merkataldenda, Ozaeta 11-13 an gaude